




Bizi dantzan.com, 2012.urte hasieran sortutako taldea da,. **dantzan.com** web gunearen babes talde bezala sortu zen. Dantzariontzat hain premiazkoa den **dantzan.com** guneak bere zerbitzua eten behar izan zuen 2012.urte hasieran eta ahalegin handien ondorioz, urte bereko irailean berriro martxan jarriko da. Hala ere, guztion laguntza beharko du bizirik mantendu ahal izateko.

Dantzari eta dantza zaleok **dantzan.com** bizirik nahi dugu. Honen harira, gurekin elkartu nahi duzuen guztioi **bizi dantzan.com** irudia luzatu nahi dizuegu, gurekin batera lau haizetara zabaldu dezagun.

Irudia Beasaingo komunikazio eta diseinu grafikoko Tandemeko Erkuden Mendizabalek sortu du, erabilpena gure esku jarritz. Irudiaren edozein moldaketea eta egokitzapen egiteko prest dagoela adieraziz.

Zuen eskura **bizi dantzan.com bizi** irudiak formato desberdinetan jartzen ditugu zuen helbide elektronikotan, sare sozialetan eta abar txertatzeaz gain, kamisetak, txapak pegatinak edo beste edozein materialetan txertatzeko.

1. Helbide elektronikorako sinadurak zein sare sozialetan eta interneten erabiltzeko erresoluzio bajuko irudiak..



2.- Materialari dagokionez, asmoa da, edonork irudia erabiltzea gogoko duen moduan eta **bizi dantzan.com** irudia zabaltzea. Beraz, askatasun osoz erabil daiteke irudia dirua irabazteko baliatzen ez garen bitartean. Diru sarrera modura erabiltzeko eskubide bakarra bizii dantzan.com babes taldeak izango du, beti ere web guneari laguntzeko erabilzeko asmoz. Dantza talde bateko irudiarekin batera erabil daiteke baita ere, kasu horretan dantza taldeko diru sarrera gisa erabil daiteke diru sarrera, bizi dantzan.com irudia gehigarri bezela erabiltzen bait da.

### 2.1- Kamisetak.



### 2.2.-Lepoko zapiak



### 2.3- Txapak



Eskura dituzuen irudiak:

